

PROGRAMA PROGRAMA	KONTZEPTUA CONCEPTO	PEZETAK PESETAS	EUROAK EUROS
9311	441.49	26.621.760	160.000, 00

Fondoak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumitzailearen Europako Zentroarentzat izango dira, funtzionamendu-gastuak ordaintzeko.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko uztailaren 3an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,  
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

Los fondos se destinarán a la realización de acciones de información al consumidor: folletos informativos, intervenciones en medios de comunicación, etc.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de julio de 2001.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,  
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,  
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### Zk-4119

124/2001 DEKRETUA, uztailaren 3koa, Gizarte Ongizaterako Kontseiluaren funtzionamendu-araudia eta osaera finkatzen dituen dekretua bigarrenez aldatzeko dena.

Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legeren 16. artikuluaren bitartez, Gizarte Ongizaterako Kontseilua eratu zen. Geroztik, dekretu batzuen bitartez garatu egin zen kontseilu hori. Hara hemen dekretu horiek: funtzionamendu-araudiaren eta osaeraren gaineko irailaren 16ko 298/1998 Dekretua; azken dekretu horri aldatzen duen azaroaren 3ko 298/1998 Dekretua, hots, Gizarte-Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea argitaratu ondoren beharrezko diren aldaketak ezartzen dituena.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 1999ko uztailaren 15eko Aginduaren bitartez, Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren funtzionamendu-araudia onartu zen. Eta Irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 10. artikuluan ezartzen denez, kontseiluren osoko bilkurari dagokio kontseiluaren funtziona-

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

### Nº-4119

DECRETO 124/2001, de 3 de julio, de segunda modificación del Decreto de composición y régimen de funcionamiento del Consejo Vasco de Bienestar Social.

El artículo 16 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, constituyó el Consejo Vasco de Bienestar Social, posteriormente desarrollado por el Decreto 204/1997, de 16 de septiembre, de composición y régimen de funcionamiento, y por el Decreto 298/1998, de 3 de noviembre, de modificación del anterior, que establecía los cambios necesarios introducidos a partir de la publicación de la Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la exclusión social.

El artículo 10 del Decreto 204/1997, de 16 de septiembre, establece que corresponderá al Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social la elaboración y modificación de su reglamento de funcionamiento, que fue aprobado mediante Orden de 15 de julio de 1999, del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social. En

mendu-araudia onartu eta aldatzea. Bestalde, aipatu aginduaren 10. artikuluan ezartzen denez, Gizarte Ongizaterako Kontseiluari dagokionez, borondatea agertzeko eta ebatziak hartzeko organo gorena: osoko bilkura da.

1998ko maiatzaren 11n egindako batzarrean, Gizarte Ongizaterako Kontseiluaren Osoko Bilkurak, aztergaitako 3. puntuari dagokionez, honako hau erabaki zuen: irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 8. artikuluan jasotakoarekin bat, Euskordezko Batzorde Iraunkorra eratzea. Erabaki horretan bertan, hiru foru aldundiak ordezkarien izatea ebatzi zuten, txandaka, hasieran Arabako Foru Aldundiko batzordekidea, gero Bizkaiko Foru Aldundiarena, eta azkenik Gipuzkoako Foru Aldundiarena —lurraldeen izenen orden alfabetikoari jarraikiz. Udalen ordezkarien, halaber, txandak egiteko modu bera erabiltzea erabaki zuten. Bestalde, erakunde sindikalei, erabiltaileei, gizarte-laneko boluntarioei eta profesionalei dagozkien ordezkarien euren artean ebatzik dituzte ordezkatze-erak.

Urte bian jardun eta gero, egun Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideek Eskuordezko Batzorde Iraunkorreko kide gehiago izan beharra aztertu dute. Eta hori hala da, batetik, lurralde historikoetako foru aldundiak barruan izateak duen garrantzia eta udaleen ordezkatze-ahalmen handiagoa direla-eta, eta, bestetik, alde sozialak ordezkari gehiago izateko egindako eskabidea dela-eta. Hortaz, 2000ko ekainaren 28an egindako batzarrean, Gizarte Ongizaterako Kontseiluaren Osoko Bilkurak, aztergaitako 2. puntuari dagokionez, Eskuordezko Batzorde Iraunkorreko kideak gehitza erabaki zuen, 12tik 20ra

Parteen —erakundearen eta parte sozialaren— parrekotasunaren antolamendu-jarraibideei eustearren, Eskuordezko Batzorde Iraunkorrak honekaxe hartuko ditu beste zortzi kide: parteetariko bakoitzetik beste 4 kide hartuaz. Gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 16.2 artikuluak jasotzen ditu aipatu antolamendu-jarraibideak

Erakundeen parteari dagokionez, foru aldundiak ordezkari bat izan beharrean hiru izango dituzte, eta, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek.

Parte sozialari dagokionez, batzordekide-ordezkariaiak sei izatetik 10 izatera igaroko dira, eta hori korrelazioz eta kide horien jatorrizko antolakundeak aldatu gabe egin beharko da.

Eta esandakoaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko uztailaren 3ko batzarrean aztertu eta onartu ostean, honako hau

el artículo 10 de esta Orden se establece que el Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social es el órgano supremo de decisión y formación de la voluntad del Consejo.

En la sesión celebrada el día 11 de mayo de 1998 el Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social acordó, punto 3 del orden del día, constituir la Comisión Permanente Delegada, conforme a lo previsto en el artículo 8 del citado Decreto 204/1997 de 16 de septiembre. En ese mismo acuerdo los representantes de las tres Diputaciones Forales decidieron estar presentes en la Comisión Permanente Delegada de forma rotatoria, comenzando el vocal de la Diputación Foral de Alava, posteriormente el de la Diputación de Bizkaia y por último el de la Diputación de Gipuzkoa, atendiendo al orden alfabético en euskera de los tres territorios. Por su parte, los representantes de los Ayuntamientos adoptaron la misma forma de rotación y los vocales correspondientes a las organizaciones sindicales, de personas usuarias, de voluntariado social y de profesionales adoptarían entre ellos su forma de representación.

En este momento, después de dos años de funcionamiento, los vocales del Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social han considerado la necesidad de aumentar los representantes de la Comisión Permanente Delegada. Por un lado debido a la importancia de la presencia efectiva en su seno de las tres Diputaciones Forales de los Territorios Históricos y de una mayor representatividad de los Ayuntamientos y, por otro, a la petición de aumento de representantes correspondientes a la parte social. De este modo, en la sesión celebrada el día 28 de junio de 2000 el Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social acordó, punto 2 del orden del día, ampliar de 12 a 20 los miembros de la Comisión Permanente Delegada.

En aras de la necesidad de preservar la pauta organizativa de la paridad entre las partes, institucional y social, que recoge el artículo 16.2 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de servicios sociales, el incremento de ocho miembros en la composición de la Comisión Permanente Delegada se realiza incorporando cuatro miembros a cada una de éstas.

Por lo que respecta a la parte institucional, aumentan de uno a tres tanto los representantes de las Diputaciones Forales como los de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma Vasca.

Correlativamente, y por lo que se refiere a la parte social, se aumenta de seis a diez los vocales que la representan, sin alterarse las organizaciones de las que éstos proceden.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 3 de julio de 2001,

## XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.**— Gizarte Ongizaterako Kontseiluaren funtzionamendu-araudia eta osaera finkatzen dien irailaren 16ko 204/1997 Dekretuaren 8. artikuloko 1. paragrafoari beste idatzeta bat ematea, hara hemen idatzeta berri hori:

«**8. Artikulua.**— Batzorde Iraunkorreko ki-deak.

1.— Eskuordezko Batzorde Iraunkorrak kide hauek izango ditu:

- a) Kontseiluko lehendakaria, Batzorde Iraunkorrekoa ere izango dena.
- b) Kontseiluko lehendakariordea, Batzorde Iraunkorreko lehendakaria ez dagoela honen ordeak egingo dituena.
- c) Gizarte Ongizate zuzendaria.
- d) Droga Gaietarako idatzaria.
- e) Lurralde Historikoetariko bakoitzaren ordezkari den batzordekide bat (hiru guztira).
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen ordezkari diren hiru batzordekide.
- g) Sindikatuen, enpresarioen erakundeen, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioen, erabiltaileen, gizarte-laneko boluntarioen eta profesionalen ordezkari diren bi batzordekide.»

## AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko uztailaren 3a.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, lan eta Gizarte Segurantza sailburua,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

## DISPONGO:

**Artículo único.**— Se da nueva redacción al párrafo 1 del artículo 8 del Decreto 204/1997, de 16 de septiembre, de composición y régimen de funcionamiento del Consejo Vasco de Bienestar Social, que queda redactado de la siguiente manera:

«**Artículo 8.**— Composición de las Comisiones Permanentes.

1.— La composición de la Comisión Permanente Delegada es la siguiente:

- a) El/La Presidente/a del Consejo, que lo será también de la Comisión Permanente.
- b) El/La Vicepresidente/a del Consejo, que actuará de Presidente/a de la Comisión Permanente en ausencia del/la mismo/a.
- c) El/La Directora/a de Bienestar Social.
- d) El/La Secretario/a de Drogodependencias.
- e) Un/a vocal en representación de cada una de las Diputaciones Forales de los tres Territorios Históricos.
- f) Tres vocales en representación de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma Vasca.
- g) Diez vocales representantes de las organizaciones sindicales, empresariales, de la Confederación de Cooperativas de Euskadi, de personas usuarias, del voluntariado social y de profesionales.»

## DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de julio de 2001.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.